

aurreTIK

2007

Hau txosten zabalago baten laburpena baino ez da, web honetan eskura daitekeena.
versión reducida de un informe más amplio disponible en:

www.barrixe.com



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

Berrikuntza eta Ekonomi
Sustapen Saila
Departamento de Innovación
y Promoción Económica



BILBOKO
MERKATARITZA
GANBERA

CÁMARA DE
COMERCIO
DE BILBAO

Metodologia

Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) 2006ko azken hiruhilekoan egin zuen Teknologi Berrikuntzaren 2005eko Inkesta. Txosten hau egiteko Teknologi Berrikuntzaren 2005eko Inkestan jasotako Bizkaiko datuen taula aztertu eta landu da. Barrixe-Bizkaiko Berrikuntza Behatokiak berariaz eskatu dio Eustati informazio hau txosten honetarako.

Metodología

El Instituto Vasco de Estadística (Eustat) realizó la Encuesta de Innovación Tecnológica 2005 a lo largo del último trimestre de 2006. El presente informe se basa en el análisis y explotación de las tablas de datos para Bizkaia de la Encuesta de Innovación Tecnológica 2005, dicha información ha sido obtenida ad-hoc para el Observatorio de Innovación de Bizkaia-barrixe.

Bizkaiko enpresa* berritzailearen erradiografia

Radiografía de la empresa* innovadora de bizkaia

*10 langile edo gehiagokoak *con 10 ó más trabajadores		2004	2005
Enpresa berritzaileak Empresas innovadoras		30,1%	32,4%
Teknologi berrikuntzarekin lotutako jarduerak burutu dituzte Han realizado actividades relacionadas con la innovación tecnológica		28,9%	29,0%
Produktu berritzaileak sartu dituzten enpresak Empresas que hacen innovación		32,3%	34,4%
Enpresarako produktu berrien negozio-zifraren ehunekoa Porcentaje de la cifra de negocio de los productos nuevos para la empresa		25,4%	19,1%
Merkaturako produktu berrien negozio-zifraren ehunekoa Porcentaje de la cifra de negocio de los productos nuevos para el mercado		10,6%	7,8%
Prozesu berritzaileak sartu dituzten enpresak Empresas que han introducido procesos innovadores		24,6%	26,3%
Berrikuntza jardueretarako laguntza finantzario publikoak jaso dituzten enpresak Empresas que han recibido apoyo financiero público para actividades de innovación		13,4%	15,1%
I+G eta berrikuntza jardueretarako lankidetza hitzarmenak dituzten establezimenduak Establecimientos con acuerdos de cooperación sobre actividades de I+D e innovación		15,0%	21,8%
Berrikuntzak gauzatzeko eragozpenak aurkitu dituzte Han encontrado dificultades para realizar innovaciones		63,2%	63,3%
Patenteak eta bestelako babes metodoak darabiltzate Uso de patentes y otros métodos de protección		11,2%	29,3%
Bestelako aldaketak edo hobekuntzak egin dituzte estrategian eta antolakuntzan Han realizado otro tipo de cambios o mejoras estratégicas y organizativas		33,9%	36,0%

10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen %34,4k produktu berritzaileak sortu dituzte (esamolde honen barruan sartzen dira bidean diren berrikuntza jarduerak, bai eta huts egiteagatik merkaturatu ez direnak) beren enpresetan eta kopuru hau 2004koa baino ehuneko bi puntu handiagoa da.


Un 34,4% de las empresas de 10 ó más trabajadores de Bizkaia hace innovación, (dicha acepción recoge también las actividades sobre innovación que están en curso y las que han resultado fallidas y, por consiguiente, no han salido al mercado) el porcentaje es superior en 2 puntos porcentuales al de 2004.

Teknologi berrikuntzarako jarduerak

Teknologi berrikuntzarako jarduerak zientzia, teknologia, antolakuntza, finantza eta merkataritza lanen multzoa dira, baita jakintza berrietarako egindako inbertsioa ere, teknologikoki berriak edo hobetuak diren produktuak edo prozesuak egitera daramaten edo eraman nahi duten jakintzak, alegia.

Bizkaiko enpresen %29,0k teknologi berrikuntzarekin lotutako jarduerak burutu dituzte 2005. urtean, hau da, 2004. urteko ehuneko berdintsua erregistratu da.

TEKNOLOGI BERRIKUNTZARAKO JARDUERAK ACTIVIDADES PARA LA INNOVACIÓN TECNOLÓGICA



Industria establezimenduen %33,3k eta zerbitzuen %31,6k hainbat jarduera burutu dituzte 2005. urtean teknologi berrikuntzak lortzeko.

Tamainak badu eragina berrikuntzan, izan ere, berrikuntza gutxien sortzen dituzten enpresak 10 eta 19 langile bitartekoak dira (%21,7).

Actividades para la innovación tecnológica

Las actividades para la innovación tecnológica son el conjunto de trabajos científicos, tecnológicos, organizativos, financieros y comerciales, incluyendo la inversión en nuevos conocimientos, que conducen o pretenden conducir a la realización de productos o procesos tecnológicamente nuevos o mejorados.

Un 29,0% de las empresas de Bizkaia ha realizado en 2005 actividades relacionadas con la innovación tecnológica, un porcentaje similar al de 2004.

Un 33,3% de los establecimientos industriales y un 31,6% de los de servicios ha llevado a cabo diversas actividades en 2005 con la finalidad de obtener innovaciones tecnológicas.

El tamaño es un factor que influye en la innovación, así, las empresas de entre 10 y 19 trabajadores (21,7%) son las que menos innovan.

Nork garatu ditu produktu horiek?

Produktu/zerbitzu berrikuntzarik gehienak enpresan bertan garatzen dira (%50), baina portzentaje handi bat lankidetzan garatzen dira beste enpresa eta erakunde batzuekin (%21,9) eta bai enpresa beraren beste departamentu batzuekin ere (%15,7). Produktu berrikuntzen %12,5 baino ez dituzte garatu beste enpresa edo erakunde batzuek, nolana ere kopuru honek nabarmen gora egin du aurreko urtearen aldean (%9,8).

10 enplegatu edo gehiagoko industri enpresen ia hiru laurdenek (%72,7) produktu edo zerbitzu berrikuntzak barnean garatzen dituzte gehienbat, eta portzentaje horrek nabarmen gora egin du aurreko urtearen aldean. Zerbitzuen sektorean ere nagusiki establezimenduan bertan egiten dira produktu berrikuntzak, halere, pisu espezifiko handiagoa du beste enpresa batzuekiko lankidetzak (%28,4), enpresa beraren beste establezimendu batzuekiko lankidetzak (%18,1) baino are garrantzi handiagoa hartu duelarik, azken hau zazpi puntu baino gehiago jaitsi baita.

Enpresa handienek (%20,7) eta txikienei (%17,4) kolaboratzen dute gutxien beste enpresa batzuekin produktua berritzeko. 20 eta 49 langile bitartean dituztenek, berriz, produktua berritzeko kanpoko baliabideak (beste enpresa edo erakunde batzuk) gehien erabiltzen dituztenak dira (%20,5).

¿quién ha desarrollado esos productos?

La mayor parte de las innovaciones de producto/servicio se desarrolla en las propias empresas (50%), si bien, también hay un porcentaje significativo que se lleva a cabo en cooperación con otras empresas e instituciones (21,9%) y en cooperación con otros establecimientos de la misma empresa (15,7%). Únicamente en un 12,5% de los casos, la innovación de producto se ha realizado por otra empresa o institución, aunque hay que señalar que dicho porcentaje ha aumentado de modo significativo con relación a un año antes cuando se situaba en un 9,8%.

Casi tres cuartos partes (72,7%) de las empresas industriales de 10 ó más empleados desarrollan internamente las innovaciones de producto o servicio, un aumento significativo con respecto al año anterior. En el sector de servicios, aunque predomina también el desarrollo de nuevos productos en el propio establecimiento, tiene un mayor peso específico la cooperación con otras empresas (28,4%), ganando terreno esta opción a la cooperación con otros establecimientos de la propia empresa (18,1%), la cual disminuye más de siete puntos.

Las empresas de mayor tamaño (20,7%) y las más pequeñas (17,4%) son las que menos cooperan con otras empresas para innovar en producto. Las empresas de 20 a 49 trabajadores son las que más utilizan recursos externos (otras empresas o instituciones) para innovar en producto (20,5%).

Nork garatu ditu prozesu horiek?

Prozesu berrikuntza gehiago garatzen dira beste enpresa edo erakunde batzuetan (%32,6) enpresan bertan baino (%31,8).

Prozesu berrikuntza sektoreka aztertzen badugu, joera erabat aldatu dela ikusiko dugu. Enpresan bertan garatutako prozesu berrikuntza ikaragarri jaitsi da aurreko urtearen aldean industriaren eta eraikuntzaren sektoreetan. Baina bai batean eta bai bestean gora egin du prozesu berrikuntzak garatzeko beste enpresa edo erakunde batzuetara jo duten enpresen kopuruak; zerbitzuen sektorean ere beste horrenbeste gertatzen da, baina kasu honetan aldea ez da hain handia.

Enpresa handienak (%37,2) dira establezimenduan bertan prozesu berrikuntza gehien burutzen dituztenak. 10 eta 19 langile bitarteko enpresak dira prozesu berrikuntzak sartzeko beste enpresa batzuen laguntza gehien bilatzen dutenak.

¿quién ha desarrollado estos procesos?

Las innovaciones de proceso se realizan en mayor medida en otras empresas o instituciones (32,6%), que en el propio establecimiento (31,8%).

Si analizamos la innovación de proceso por sectores observamos un cambio de tendencia importante. El desarrollo en la propia empresa ha descendido bruscamente, con respecto al año anterior, en los sectores de industria y construcción. En cambio, en ambos casos aumenta considerablemente recurrir a otras empresas o instituciones, una situación que se repite también en el caso del sector de servicios, aunque con una variación mucho menor.

Las empresas de mayor tamaño (37,2%) son las que más innovaciones de proceso en el propio establecimiento realizan. Al mismo tiempo, las empresas de 10 a 19 trabajadores son las que más se apoyan en otras empresas para introducir innovaciones en los procesos.

NORK GARATZEN DITU BERRIKUNTZAK? ¿QUIÉN DESARROLLA LAS INNOVACIONES?

PROZESUA DE PROCESO PRODUKTUA DE PRODUCTO




Enpresa berritzaileak

Produktu edota prozesu berritzaileak sortu dituzten 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen, hots, enpresa berritzaileen ehunekoa 2005. urtean %32,4koa izan da eta aurreko urtekoa baino 2,3 puntu handiagoa da.

Industriaren sektorean, 10 langile edo gehiagoko enpresa berritzaileen kopurua are handiagoa da, alegia, %39,1ekoa. Zerbitzuen sektorea ere batez bestekoaren gainetik kokatu da eta ehuneko ia hiru puntu gehiago erregistratu dira. Aitzitik, eraikuntza sektoreko 10 langile edo gehiagoko enpresen %4,3k (aurreko urtean baino ehuneko apalagoa) baino ez du berrikuntzarik sortzen produktuan zein prozesuan.

El porcentaje de empresas de Bizkaia de 10 ó más empleados que han introducido productos y/o procesos innovadores, es decir, empresas innovadoras, en 2005 alcanza un 32,4%, y es superior en 2,3 puntos al correspondiente a un año antes.

El porcentaje de empresas innovadoras de 10 ó más empleados del sector industrial es todavía más elevado, alcanzando una tasa del 39,1%. El sector de servicios también se sitúa por encima de la media general, registrado un ascenso de casi tres puntos porcentuales. Por el contrario, sólo un 4,3% de las empresas del sector de la construcción de 10 ó más empleados innova en producto y/o proceso, porcentaje levemente menor al año anterior.



Bizkaian enpresaren tamainak badu eragina berrikuntzarako gaitasunean, hartara, bi segmentu nabarmen desberdin agertzen zaizkigu, alde batetik, 10 eta 49 langile bitarteko enpresetan berrikuntza tasak ez dira batez bestekora iristen, eta bestetik, 50 langile eta gehiago dituztenetan Bizkaiko ia bi enpresatik batean berrikuntzak sortzen dituzte produktuan edota prozesuan.

El tamaño de empresa Bizkaia influye en la capacidad de innovación, así, observamos que se producen dos segmentos claramente diferenciados, por un lado, las empresas de 10 a 49 trabajadores con tasas de innovación que no alcanzan la media general, y por otro, las de 50 ó más, en este segundo grupo prácticamente una de cada dos empresas de Bizkaia innova en producto y/o proceso.

Berrikuntzaren finantzazio publikoa

10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen %15,1ek laguntza finantzario publikoa jasotzen du, mailegu edo diru-laguntza moduan, berrikuntza jardueretarako; portzentaje hori 2004. urtekoa baino 1,7 puntu handiagoa da. Finantzazio horren zatirik handiena Eusko Jaurlaritzak emandakoa da.

Berrikuntza arloan bizitasun gutxien duena izaki, eraikuntza sektorea izan da laguntza finantzario publiko gutxien lortu duena bere berrikuntza jardueretarako, hala ere, 2004an baino kopuru askoz hobeak erregistratu ditu. Aitzitik, industria eta zerbitzuen sektoreek Bizkaiko batez bestekoa gainditu dute.


Laguntza publikorik gehien 50 eta 99 langile bitarteko enpresek jasotzen dute (%26,8), baina orpo orpo dabilzkie 100 edo gehiagokoak (%21,1).

Financiación pública de la innovación

Un 15,1% de las empresas de 10 ó más empleados de Bizkaia recibe apoyo financiero público para sus actividades de innovación, ya sea en forma de préstamos o subvenciones, dicho porcentaje se sitúa 1,7 puntos por encima de su equivalente en 2004. La mayor parte de dicha financiación proviene del Gobierno Vasco.

El sector de la Construcción, el menos activo en materia de innovación, es el que menos financiación pública ha conseguido para sus actividades de innovación, aunque mejorando notablemente sus cifras de 2004. Por el contrario, tanto la industria como el sector de servicios presentan porcentajes que superan la media del conjunto de Bizkaia.

Las empresas que tienen entre 50 y 99 trabajadores son las que reciben mayor apoyo público (26,8%), seguidas de cerca por las que tienen 100 ó más (21,1%).



Beste aldaketa batzuk estrategian eta antolakuntzan

Produktu (ondasun zein zerbitzu) eta prozesu berrikuntzak ez ezik, enpresek bestelako aldaketa eta hobekuntza batzuk ere egin dituzakete estrategian eta antolakuntzan. Bizkaiko enpresen %36,0k horrelako aldaketaren bat egin dute 2003-2005 aldian.

Sektoreka, 2003-2005 aldian estrategia edo antolakuntza aldaketak egin dituzten 10 langile edo gehiagoko industriak %31,9 dira. Ehuneko hau 2002-2004 aldikoa baino 0,5 puntu txikiagoa da. %19,4k antolakuntza aldaketak egin dituzte eta %18,5ek kudeaketa teknika aurreratuak jarri dituzte abian.

Aurreko urteetan bezalaxe, eraikuntza sektorea da horrelako aldaketa gutxien egin dituen.

Estrategia eta antolakuntza hobekuntza tasarik handiena zerbitzuen sektoreak agertzen du (%39,8). Aurreko urtean baino 1,7 puntu gehiago erdietsi dira. Sektore honetan ere antolakuntza aldaketak dira erabilienak, baina orpo orpo dabilzkie kudeaketa teknika aurreratuak.

Enplegu mailaren arabera aztertuz gero, ageri da, beste aldagai batzuekin gertatzen den bezala, horrelako estrategiak abiarazteak nolabaiteko lotura duela enpresen tamaina handiago edo txikiagoarekin. Nolanahi ere, kasu honetan 50 eta 99 langile bitarteko enpresak dira horrelako aldaketa gehien egin dituztenak (%52), eta ondotik dabilzkie tamaina handieneko enpresak (%47,6).

Otros cambios estratégicos y organizativos

Las empresas, además de las innovaciones en productos (bienes y servicios) y procesos, pueden haber realizado otro tipo de cambios o mejoras estratégicas y organizativas. Un 36,0% de las empresas de Bizkaia ha realizado alguno de estos cambios en el período 2003-2005.


En el plano sectorial un 31,9% de las industrias de 10 ó más trabajadores ha llevado a cabo cambios estratégicos u organizativos en el período 2003-2005. Esta tasa es inferior en 0,5 puntos a la correspondiente al período 2002-2004. Un 19,4% ha llevado a cabo cambios organizativos y un 18,5% ha puesto en práctica técnicas de gestión avanzada.

Al igual que el año anterior, el sector de la construcción es el que menos ha aplicado este tipo de cambios.

Por lo que se refiere al sector de servicios, éste presenta una mayor tasa de aplicación de mejoras estratégicas y organizativas (39,8%). Además con un incremento del 1,7 puntos con respecto al período anterior. En este caso, se sitúa a corta distancia de los cambios organizativos la puesta en práctica de técnicas de gestión avanzadas.

El análisis por estrato de empleo muestra que, al igual que sucede con otras variables, la puesta en práctica de este tipo de estrategias viene ligada, en cierto modo, al tamaño de las empresas. Así, son las empresas de entre 50 y 99 trabajadores las que más han aplicado este tipo de cambios (52%), seguidas por las empresas de mayor dimensión (47,6%).

BESTE ALDAKETA BATZUK ESTRATEGIAN ETA ANTOLAKUNTZAN OTROS CAMBIOS ESTRATÉGICOS Y ORGANIZATIVOS



Produktu berrien eragin ekonomikoa enpresarentzat

2003-2005 aldian merkaturatu diren enpresarako produktu edo zerbitzu berriei dagokie 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen negozio-zifraren %19,1. Portzentaje hau 2002-2004 aldikoa (%25,4) baino txikiagoa da.

Berrikuntza horiek eragin handiagoa dute industriaren sektoreko emaitzen kontuan (%21,0) zerbitzuen sektorekoen kontuan baino (%18,3).

Fakturazioan, enpresa handienak (100 langile edo gehiagokoak) dira berrikuntza horietatik errendimendu gehien ateratzen dutenak, izan ere, haien iritziz, beren negozio-zifraren %22 produktu/zerbitzu berri horiei esker lortu dute.

Produktu berrien eragin ekonomikoa merkatuarentzat

10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresetan 2005. urteko negozio-zifraren %7,8 produktu edo zerbitzu berriak edo nabarmen hobetuak sartzearen ondoriozkoa da (establezimenduarentzat ez ezik, bere merkatuarentzat ere berriak). Kopuru hau aurreko urtekoa (2004) baino 2,8 puntu txikiagoa da.

Industriaren sektoreko enpresak (%8,3) dira produktu berriak merkaturatzeagatik fakturazio portzentajerik handiena dutenak. Zerbitzuen sektoreak hurbiletik jarraitzen dio %7,6rekin.

Enpresak tamainaren arabera aztertuz gero, ageri da enpresa txikienek (alegia, 10 eta 19 langile bitartekoak) lortu dutela 2005. urteko negozio-zifraren portzentajerik handiena merkaturako produktu berriei esker.

Impacto económico de los productos nuevos para la empresa

Un 19,1% de la cifra de negocio de las empresas de Bizkaia de 10 ó más empleados es atribuible a productos/servicios nuevos para la empresa introducidos en el mercado a lo largo del período 2003-2005. Este porcentaje es inferior al del período 2002-2004 (25,4%).

El impacto en la cuenta de resultados de estas innovaciones es superior en el sector industrial (21,0%) que en el de servicios (18,3%).


Son las grandes empresas (de 100 ó más trabajadores) las que más rendimiento en términos de facturación obtienen de estas innovaciones, éstas atribuyen un considerable 22% de su cifra de negocio a sus nuevos productos/servicios.

Impacto económico de los productos nuevos para el mercado

Un 7,8% de la cifra de negocio de 2005 de las empresas de Bizkaia de 10 ó más empleados ha venido originado por la introducción de productos o servicios nuevos o sensiblemente mejorados (no sólo nuevos para su establecimiento, sino también para el mercado en el que operan). Dicha cifra es inferior en 2,8 puntos a la equivalente de un año antes (2004).

Las empresas del sector industrial (8,3%) son las que presentan un mayor porcentaje de facturación por la introducción de nuevos productos para el mercado. En una posición cercana se sitúa el sector de servicios (7,6%).

En el análisis en función del tamaño de la empresa, se puede observar que las empresas de menor tamaño, de 10 a 19 trabajadores, son las que presentan mayor porcentaje de la cifra de negocio de 2005 atribuible a productos novedosos para el mercado.




Lankidetza hitzarmenak dituzten establezimenduak

Bizkaian 10 enplegatu edo gehiago dituzten eta berrikuntzak sortzen dituzten enpresen % 21,8k lankidetza hitzarmenak izenpetu dituzte beste enpresa edo erakunde batzuekin I+G jardueren inguruan 2003-2005 aldian. Portzentaje hori 2002-2004 aldikoa baino 6,8 puntu handiagoa da.

Establecimientos con acuerdos de cooperación

Un 21,8% de las empresas de 10 ó más empleados de Bizkaia que innova ha firmado acuerdos de cooperación sobre actividades de I+D e innovación con otras empresas o Instituciones en el horizonte temporal 2003-2005. Dicho porcentaje se sitúa 6,8 puntos por encima del correspondiente período 2002-2004.

LANKIDETZA HITZARMENAK DITUZTEN ESTABLEZIMENDUAK



ESTABLECIMIENTOS CON ACUERDOS DE COOPERACIÓN

Industri enpresek (%23,1) lankidetza hitzarmen gehiago izenpetzen dituzte zerbitzu enpresek baino (%20,2).

Enplegu mailari erreparatuz gero, lankidetza hitzarmenen kopurua enpresen tamainaren arabera izaten da. Hartara, enpresarik handienetan (100 langile eta gehiagokoetan) I+G eta berrikuntza jardueren inguruko lankidetza hitzarmenak %42,4 dira, eta portzentaje hori %14,2raino jaisten da enpresa txikienetan.

Las empresas industriales (23,1%) suscriben más acuerdos de cooperación que las de servicios (20,2%).

En el análisis por estrato de empleo, el número de acuerdos de cooperación tiene una correlación positiva con el tamaño de las empresas. Así, un 42,4% de las empresas más grandes (con más de 100 trabajadores) suscribe acuerdos de cooperación sobre actividades de I+D e innovación, porcentaje que va disminuyendo hasta el 14,2% para las empresas más pequeñas.



Teknologi berrikuntzarako batez besteko gastua

Gasto medio para la innovación tecnológica

Berrikuntzak sortzen dituzten 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresek barneko I+G jardueretarako erabiltzen dute baliabiderik gehien, eta horren ondoren makineria eskuratzeko. Baina lehenengoak gorakada izan du aurreko urtearen aldean (%9,5) eta bigarrena, aldiz, -%3,3 jaitsi da. Hauxe izan da hazkunderik handiena izan duen jarduera: patenteak, lizentziak, fabrika markak, softwarea eta abar erabiltzeko eskubideak erostea. Izan ere, jarduera honetan erdietsitako kopurua 2004an erdietsitakoa baino hiru aldiz handiagoa izan da.

Industri enpresek berrikuntza baliabideen %40,4 makineria eskuratzeko erabiltzen dute. Zerbitzu enpresek, ordea, barneko I+G-ko erabiltzen dute baliabiderik gehien (%59,3).

Enplegu mailaren arabera azterketa bat eginez gero, tamainaren eta baliabideen logika dela eta, ageri da 100 langile eta gehiago dituzten enpresen batez besteko inbertsioa askoz ere handiagoa dela gainerako segmentuetan baino.

La I+D interna es la actividad a la que dedican más recursos las empresas de 10 ó más empleados de Bizkaia que innovan, seguida de la adquisición de maquinaria. Sin embargo, su evolución es distinta. De este modo, mientras que la primera de ellas muestra un incremento en 2005 con relación a un año antes (9,5%), la segunda disminuye en un -3,3%. El crecimiento más llamativo tiene lugar en la compra de derechos de uso de patentes, licencias, marcas de fábrica, software, etc. que multiplica por tres la cifra de 2004.

El sector industrial dedica un 40,4% de sus recursos de innovación a la adquisición de maquinaria. Por el contrario, el sector de servicios concentra sus recursos (59,3%) en la I+D interna.

En un análisis por estrato de empleo se puede observar que, por lógica de dimensión y disponibilidad de recursos, las empresas con plantilla superior a los 100 empleados, muestran una inversión media significativamente superior a la del resto de segmentos.

TEKNOLOGI BERRIKUNTZARAKO BATEZ BESTEKO GASTUA JARDUERA ADARRAREN ARABERA

GASTO MEDIO PARA LA INNOVACIÓN TECNOLÓGICA POR RAMA DE ACTIVIDAD

euro	Guztira Total		Industria Industria		Eraikuntza Construcción		Zerbitzuak Servicios	
	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005
Barneko I+G I+D Interna	51.465	56.353	67.269	73.128	419	1.807	55.336	62.086
Kanpoko I+G I+D Externa	14.939	15.477	35.821	40.158	120	1.405	8.901	8.175
Makineria eskuratzeko Adquisición de Maquinaria	32.166	31.091	87.187	84.678	2.094	1.351	14.352	15.042
Kanpoko beste jakintza batzuk (1) Otros conocimientos externos (1)	2.325	7.550	1.647	5.809	105	87	3.094	10.076
Pertsonal berritzailearen prestakuntza Formación al personal innovador	2.489	2.157	3.189	2.086	391	143	2.626	2.667
Produktu berritzaileak merkaturatzea (2) Comercialización de productos innovadores (2)	1.497	2.148	1.715	1.666	133	0	1.689	2.867
Berrikuntzak inplementatzeko diseinua eta prestaketak (3) Diseño y preparativos para la implementación de innovaciones (3)	2.141	2.996	2.043	2.081	0	1.184	2.638	3.822

(1) patenteak, lizentziak, fabrika markak, softwarea eta abar erabiltzeko eskubideak erostea
(2) berrikuntzak merkaturatzearekin zuzenki lotutako jarduerak
(3) beste atal batzuetan sartzen ez diren berrikuntzak inplementatzeko prestaketak.

(1) compra derechos uso patentes, licencias, marcas fábrica, software, etc.
(2) actividades directamente relacionadas con la introducción en el mercado de las innovaciones
(3) preparativos para realizar la implementación real de las innovaciones no comprendidos en otros apartados

Teknologi berrikuntza mota

Bizkaiko enpresek produktuan (%14) baino prozesuan (%26,3) berrikuntza gehiago sortzen dute.

Bizkaiko ekoizpen sektore guztiek joera nagusiari jarraitzen diote, izan ere, denek sortzen dute berrikuntza gehiago prozesuan produktuan baino. Produktuan berrikuntza gehien industriak egiten du, %19,9 hain zuzen, eta zerbitzuen sektoreak %14,6. Prozesu berrikuntzetan, berriz, industria sektoreak (%28,9) baino zerbitzuen sektoreak du tasa handiagoa (%30,7).

Prozesu berrikuntza enplegu maila guztietan gailentzen da, baina 100 langile eta gehiago dituzten enpresetan produktu berrikuntzaren paretsu dago.

Tipo de innovación tecnológica


Las empresas de Bizkaia innovan más en proceso (26,3%) que en producto (14%).

Todos los sectores productivos de Bizkaia siguen la tónica general, innovando más en proceso que en producto. El mayor porcentaje de innovación en producto lo lleva a cabo la industria (19,9%) seguido por el sector de servicios con un 14,6%. En el caso de las innovaciones en proceso corresponde al sector de servicios una mayor tasa (30,7%) que al sector industrial (28,9%).

La innovación de proceso predomina para todos los estratos de empleo, si bien, en el caso de las empresas de 100 ó más trabajadores en términos similares a la innovación de producto.

TEKNOLOGI BERRIKUNTZA MOTAK TIPO DE INNOVACIÓN TECNOLOGICA

■ 2004 ■ 2005



Berrikuntza eragozten duten faktoreak

10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen %63,3k eragozpenen bat aurkitu dute 2005. urtean berrikuntza jardueran, hots, 2004ko ia portzentaje bera (%63,2) erregistratu da.


Sektoreka aztertuta, 10 langile edo gehiagoko industri enpresek aurkitzen dute eragozpen gehien (%73,4), eta sarritan eragozpen hauek berrikuntzaren kostu handien eta gehiegizko arrisku ekonomikoen ondoriozkoak izaten dira.

Factores que dificultan la innovación

Un 63,3% de las empresas de 10 ó más empleados de Bizkaia ha encontrado en 2005 algún tipo de dificultad en su actividad de innovación, un porcentaje prácticamente idéntico al del año 2004 (63,2%).

En el análisis sectorial, las industrias de 10 ó más trabajadores son las que más dificultades encuentran (73,4%), especialmente originadas por los elevados costes de sus procesos de innovación y los excesivos riesgos económicos.

BERRIKUNTZA ERAGOZTEN DUTEN FAKTOREAK FACTORES QUE DIFICULTAN LA INNOVACIÓN



Patenteak eta bestelako babes metodoak


2003-2005 aldian, 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen %29,3k patenteren bat eskatu dute, patenteren bat indarrean zuten edo beren asmakariak edo berrikuntzak babesteko metodoren bat erabili dute. Gainera ehuneko hori 2002-2004 aldikoa baino ia hiru bider handiagoa da.

Bizkaiko enpresetan, ekoizpen sektorea gorabehera, gehitu egin da patenteen erabilera eta berrikuntzak babesteko beste metodo batzuen erabilera.

Industriaren sektoreak burutzen ditu horrelako jardura gehien, %36,7 hain zuzen ere, eta gutxien zerbitzuen sektoreak (%25,9). 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko industrien %12,2k patenteren bat zuten indarrean 2005. urtearen amaieran, hots, aurreko urtean baino 5,4 puntu gehiago erregistratu dira.

Enpresa handien (100 langile edo gehiagokoak) %47,2k patenteren bat eskatu dute 2003-2005 aldian, patenteren bat indarrean zuten 2005. urtearen amaieran edo beren asmakariak edo berrikuntzak babesteko metodoren bat erabili dute aldi horretan.

PATENTEEN ETA BESTELAKO BABES METODOEN ERABILERA USO DE PATENTES Y OTROS MÉTODOS DE PROTECCIÓN



2004 2005


Patentes y otros métodos de protección

En el período 2003-2005, un 29,3% de las empresas de Bizkaia de 10 ó más trabajadores ha solicitado alguna patente, tenía alguna patente en vigor o ha hecho uso de algún método para proteger sus invenciones o innovaciones. Este porcentaje además casi multiplica por tres la tasa correspondiente al período 2002-2004.

Las empresas de Bizkaia, independientemente del sector productivo, incrementan de un modo importante el uso de patentes y otros métodos de protección de sus innovaciones.

La industria, con un 36,7%, es el sector más activo, siendo, el sector de servicios el que menos patentes registra (25,9%). Un 12,2% de las industrias de Bizkaia de 10 ó más trabajadores tenía algún tipo de patente en vigor a finales de 2005, lo que supone un incremento de 5,4 puntos sobre el año 2004.

Un 47,2% de las empresas de mayor tamaño (más de 100 trabajadores) ha solicitado alguna patente en el período 2003-2005, tenía alguna patente en vigor a finales de 2005 o ha hecho uso de algún método para proteger sus invenciones o innovaciones en ese período.



►► ■ Bai Aurretik eta bai beronen bertsio hedatua ere barrixe-Bizkaiko Berrikuntza Behatokian aurki ditzakezu

Web orri honetan ezagutu ahal izango duzu :

- Bizkaiko berrikuntzaren egoera
- Sektore estrategiko nagusiak norantz doaz
- Berrikuntza arrakastatsuak nazioartean
- Berrikuntzari buruzko laguntza eta diru laguntzen azken deialdiak European, Estatuan, Euskadin eta Bizkaian

Nahi izanez gero, aldian behin jasoko duzun albiste buletinean edo bestela RSS zerbitzuan harpidetu zaitezke.



<http://www.barrixe.com>

gure web
nuestra web



►► ■ Tanto el Aurretik, así como su versión ampliada está disponible en la web barrixe-Observatorio de la innovación de Bizkaia.

Además en dicha web podrá conocer :

- El estado de la Innovación de Bizkaia
- Hacia dónde se dirigen los principales sectores estratégicos
- Innovaciones exitosas en el ámbito internacional
- Últimas convocatorias sobre las ayudas y subvenciones a la Innovación en Europa, el Estado, Euskadi y Bizkaia

Si lo desea puede suscribirse al boletín de noticias de forma periódica o bien si lo prefiere puede suscribirse al servicio de RSS



innovando:Bizkaia:berritzen